

Espazioa Gizakia ilargira iritsi zela 30 urte

Ordu arteko misiorik garestiena izan zen hura

Inoiz horrelako misio baterako jarritako dirutzarik handiena xahutu zuten estatu batuarrek misio hartan: garai hartako 25.000 milioi dolar (4 bilioi pezeta edo 160.000 milioi libera inguru gaur egungo trukean). Aurrez, Panamako kanalaren eraikuntza lanetara baino ez zuten hain dirutza handia bideratu.

Hain proiektu garestia izan zela kontuan hartuta, esan liteke misio hark lortu zuen emaitza, zientziaren alorrean behintzat, kaskar samarra izan zela. Aditu guztiak datoz bat azpimarratzera: askoz ere garrantzitsuagoak izan zirela lorpen politiko eta teknologikoak.


Azken horien adibidetzat jarri dituzte Lurraren inguruan biran dabiltzan sateliteak. Adierazi dute misio hartan lortutako informazioari esker ekin ahal izan zitzaioala aldi berri horri. Gaur egun, sateliteak egunerokoak ditugu ia; haien bitartez jakiten dugu bihar zer eguraldi egingo duen edota hark bidaltako seinaleari esker ikusten ditugu atzerriko telebista kateak.

Aurrerapen horri materialen arloan lortutako beste zenbait ere gehitu behar zaizkio. *Apolo 11* misiorako asmatu zuten, esate baterako, Kevlar izeneko material berezia. Gaur egun, erresistentzia handiko material hori autoak blindatzeko erabiltzen da, besteak beste.

Hori eta antzeko beste zenbait aurrerapenen aldean, baina, ilargirako misio hark izan zuen eragin politikoa izan zen nabarmenagoa, ez mundu zabalean baina bai Estatu Batuetan.

1969. urtean herrialde hartan krisi ekonomikogogor-gogorra ari ziren pairatzen; arrazakeria eta eskubide zibilei buruzko protestaldiak eta eztabaida gorigorian ziren; eta, batez ere, vietnamdarren aurka ari ziren borrokan, eta gerra hark sekula baino kontrako jarrera gehiago sortu zituen. Geroztik behin eta berriz erakutsi duten moduan, orduko hartan ere agintari estatu batuarrek ondo baino hobeto aprobetxatu zuten gertakari hura herritarrak eurenera ekarri eta etxe barruko arazoak isilarazteko. Horretarako ere bai.

Jone Larrañaga
DONOSTIA



ARTXIBOKOA

Ilargiaren hego hemisferioaren irudia, Alfred Wordenek 1971n Apollo ontzitik hartua.

Orain dela 4.600 milioi urte sortu zen

EGUZKIA jaio eta 50 milioi urte ingurura sortu zen ilargia, orain dela 4.600 milioi urte. Nola sortu zen, baina, ezin argitu liteke oraindik, misterio handia izaten jarraitzen du oraindik.

Uste da urrun-urruneko garai hartan planetetara lotu ez ziren harroka puskek noraezean zebiltzala kosmosean. Abiadura handian elkarrekin talka egin zuten eta urtu eta baporizatutako puskek barreiatu ziren norabide guztietan. Horrelako prozesu batek eragin ahal izan zuen, ilargiaren jaiotza, nahiz eta ez Apollo 11.ean ez ondorengo misioetan ere, ez dute hori argitzea ahalbidetuko lukeen aztarnarik ekartzea lortu.

Baina orain hogeitahamar urteko bidai harren ondorioz, hasi zen ilargia nolakoa zen jakiten. Gure Lurra alde batera utzita, espazioako beste ezein objekturi buruzko hain informazio zabalik ez dago.

Ilargiari buruz espazioko beste ezein objekturi buruz baino gehiago dakigu, Lurra alde batera utzita noski.

Ilargiko bederatzi leku ezberdinetan jasotako 2.000 lagin baino gehiago daude gaur egun Lurrean eta milaka argazki dituzte jasoak espazio agentzietan, harribitxi modura.

Horiei denei esker dakigu ilargiak 60 kilometro inguruko lodierako azala duela eta harroka eta hautsez osatuta dagoela. Han diren harrokarik berrienak Lurrean diren zaharrenak baino askoz ere lehenago sortuak dira.

Ilargi azalean, gainera, krater handiak daude. Zulo horiek satelitearen sorrera baino askoz ere geroagokoak dira. Esan liteke ilargiaren iarrag hurbilean sortuak direla ilargiaren kraterak.

Badakigu, baita ere, apur bat asimetrikoa dela satelitea —seguruena Lurraren grabitatearen eraginaren ondorioz— eta haren litosfera uniforme dela eta atmosfera partzialki likidua.

Lurrera ekarritako laginek erakutsi dutenez, ilargian burnia gutxi dago, baina beste zenbait mineralen aberatsak dira oso hango harrokarak.

Luraren antzeko planeta baten itxura du eta gurearen ezaugarri bertsuak ditu gainera. Han bizi ahal izateko baldintza guztiak betetzen dira nahiz eta bizidunik ez dagoen. Inoiz bizirik izan dela erakutsiko luke ten fosilik ere ez dute aurkitu.

Apolo 11-ko astronautak lurrera itzuli zirenean han urik batere ez zela jakinarazi zuten. Ondorengo misio guztietan ere gauza bera berretsi zuten zientzialariek. Orain gutxi, baina satelitearen poloetan ur izoztua badela aurkitu dute, eta beraz, gizakiak han bizitzeko modua izango lukeela jakin dugu. Bada eta horretarako behar den guztia: aluminioa, burdina, hidrogenoa, helioa, oxigenoa eta ura.

Han bizitzea helburu

Hori jakinik, jada hasiak dira lantzen Ilargian giza eraikuntzak egiteko lehen proiektuak. LunOX Corporation izeneko konpainia estatu batuarrek, esate baterako, Lurretik kanpoko industriarik handiena bihurtu nahi du ehun urteko epean. Ilargi azaleko harroketako erregaia eta oxigenoa ustiatzea da asmoa. Esan dute, gainera, garesti salduko lituzketela.